

Pello Salabururen hitzak (2009-03-23)

Isabel, Xabier eta Jone,
Itziar,
Senide eta haurride guztiak, adiskideak:

Iñakiri gure azken agurra emateko elkartu gara hemen, eta hori da familiak eskertu nahi duen lehenbiziko gauza. Eskerrak, hortaz, senideen izenean, hurbildu zareten guztioi.

Beroak izanik ere, ez dira une hauek goxoak izaten. Baina gure eginkizuna da holakoetan, Iñakiren senideei, gure samintasun eta eznahiaren gaineratik, ezintasuna eramatea, hurbiltasuna adieraztea, elkartasunean bat egitea. Jakizue, hortaz, hemen garela, hemen gaituzuela. Hori bai, mina ez digu inork ere kenduko. Bihotzean minez elkartu gara, eta gure Lizardik hitz neurtuetan adierazten zuen gisan esan beharko dugu guk ere, haren mintzoa gurera ekarririk:

Bihotzean min dut, min etsia
negar isila darion mina
adiskide bat nuen: gaur, enarak
etorri-garaiez, aldegina

Iñakik baimenik eskatu gabe utzi gaitu, ustegabetan, bere ohiturak hautsiz: enarak bueltatzen diren garai honetan erabaki du, bada, hemendik partitzea. Ez dugula geroko segurantzarik, idatzi zigun Axular handiak. Gutien uste dugunean, "aitzinerat ere anitz gauzaren egiteko gogo hartzen dugunean atrapatzen baikatu heriotzak", hala zioen. Eta beste nonbait gaineratzen zuen: "Eta hala noiz eta uste baituzu, heriotzea zureganik dagoela urrunenik, orduan ohi dago komunzki hurbilenik".

Gizon prestua, adiskide leiala, langile zintzoa, lankide ona, irakasle maitatua, aita arduratua..., gure hizkuntzaren adjektibo baikor guztiak agortuko genituzke hartara jarriz gero. Hura zen gure Iñaki. Argia itzaltzen dugunean,

erakusten zuen molde hura geratuko zaigu harengandik. Eta hemen elkartu gara haren senide, adiskide eta ezagunak, hori guztia ozenki adierazi nahi baitugu.

Xalbador Urepelgo artzainak "Aita, bakarrik utzi ninduzun munduan" esaten zion bere aita zenari, eta nik ere haren hitzak erabili nahi ditut orain, udaberriko arratsalde honetara eta egoera honetara moldaturik:

"Zerurat igaitean, gure Iñaki zenak berekin joan zituen dohain gehienak. Guri eskatu zaizkigu kasik heiek denak, Adorea ta kemena ditugu Iñakirenak"

Edo hori nahi genuke, bederen, haren adore eta kemena geure egitea. Aspaldi izan nuen lankide Iñaki: elkarrekin ibili gara, batzuetan hurbil, beste batzuetan nor bere aldeari lotua, bizitzaren itzuliak makurdura handikoak eta korapilatsuak izaten baitira, azkeneko 35 urte honetan, oker ez banaiz. Deustuko unibertsitatean lehenik, Euskal Herriko Unibertsitatean ondoren. Beti, pazientziaz betea, laguntzeko prest, beti lanerako lehenbizikoa. Halakoa genuen gure Iñaki. Hori izan da haren erakutsia.

Xabier Letek, hitz ederrekin, aspaldi oroitarazten zizkigun gure patuaren ezaugarri nagusiak:

"Izarren hautsa denboran zehar bilakatu zen bizigai, Materiaren ordenamenduz noizpait ginen handik ernai, Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera Atsedetik hartu gabe: lanaren bidez goaz aurrera Kate horretan denok batera lurrari loturik gaude"

Kate batean gara hortaz, hemengo guztiak, lurrari modu batean edo bestean lotuak. Lerro horiek dioten bezala, hautsa gertatu zen, halako batean, bizigai, eta materia ernatu zen. Gu ere gure aukerak sortuz bizi gara, atsedetik gabe. Baina beti aurrera, hori egin behar dugu. Hori da Iñakiren joanak eskatzen diguna: aurrera egitea, jakitea aurrekoak izan ditugula, eta ondokoak ere izango ditugula. Zuek zarete, Jone eta Xabier, zuen aita zenduaren

ondokoak, harekin batera lurrari lotuak. Eta segur naiz harengandik ikasia duzuela lotura horiek nola bihurtzen diren erraz, nola egiten diren alai; harengandik ikasi duzue, segur naiz horretaz ere, bizitzari poza ematen, bizitzari prestutasuna ematen, bizitza apaltasunez goiti eramaten.

Ez zen gai ezetza emateko. Hala ezagutu nuen nik beti. Ikaragarri kostatzen zitzaion "hori ez dut egingo" esatea, jakitera... berak egin zezakeela, gai zela egiteko, eskatzen zioten hura. Zintzotasun eta leialtasun horrek ez zion, anitzetan, mesederik egiten, eta horrek galdu bide zuen batzuetan: honi eta hari baia, arimak hala eskaturik, eta azkenean egiteko guztiak lerroan jartzen zitzaizkion, bata bestearen gainean, ohartu gabe baia zela oztopo, baietza bera, egin behar zuenaren ondokoa egiteko. Atsedetik gabe. Bera sortu zen enbor beretik sortuko dira besteak, eta besteen bestekoak, heriotzaren ukazioa diren adaxka gazteak.

Ia-ia bat-batean gertatu dela esan daiteke, eguberrietatik hona, ongi dakizuenez. Gaitzak ez baitu barkamenik eskatzen, ezta baimenik otoizten. Hala ere, adoretzu, eta indartsu, hala ikusi nuen ospitalean, eritasuna kolpatzen ari zitzaiola gorputza:

"Zer dodan eztakit, baña gexo nago:
gorputza aul daukot, gogua ariago
arratsari nago..., itxas-urdinari,
lanari el-ezin, soilik ametsari.

Barnera so-dagit: gabeko itzal-antzo
Lexa barru ontan ezin dagit zantzo"

Orain, saltsatzen eta nahasten ari naizen euskal olerkari hauen artean –denak Iñakiren gogokoak--, Lauaxetaren hitzak ekarri nahi izan ditut guregana, hitz hitz. Beldur naiz halako zerbait pasatuko zela behin baino gehiagotan Iñakiren gogoan, bere gorputza ezinean eta indargabetua, abaildua, ikusten zuenean. Hala ere, haren ezpainetatik ez zen aterako ezer ere, irribarre azala ez bazen.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea izan dugu Iñaki aspaldi honetan. Euskal Filologiako sailkide eta Euskara Institutuaren sortzaile suharra eta bultzatzaile gartsua. Berak dinamizatu izan ditu espezialitate hizkeren inguruan antolatu ditugun jardunaldiak. Gure esker ona zor diogu. Eskerra, bai, lankidetzak eskatzen duenetik askoz ere haratago doana. Iñakik egin lana hortxe geldituko da. Hainbeste maite zuten ikasleek irakasle on bat galdu dute, guk adiskide eta laguna galdu dugu. Isabelek, Xabierrek eta Jonek, eta haren arreba Itziarrek, bat-batean, denborak eta maitasunak bakarrik beteko duten zuloa ikusi dute sortzen etxean. Baina, Iñaki, jakin behar duk, jakin, orain hire bideetatik doala gure bizitza, hirtzat dela gure negarra, eta maitasunezko hitza. Ez hago, ez, hain urrun, guregan duk hire egoitza eta hiregan gure iragana, oroitza eta otoitza bizien eta hilen loan besarkatuko dituk. Hor gaudek gu, orduaren zain, azkenari begira.

Bihotz baketsu hura bakean joan zen, bakean atzemanenez heriotza. Hala gertatzen da, omen, Axularrek orain dela mendeak idatzi zuenez.

Xabier Lete aipatu dut lehen, eta lerro artean alderatu ditut oraintxe berean haren esanak nire ezpainenara. Orain, haren otoitz ezagunarekin amaitu nahi nituzke maitasunezko agur hitz hauek:

“Sinesten dut
egun batean hilko naizela
hutsean eroria
ezerezean amildua
hauts bihurtuko naizela.

Sinesten dut
hartuko nauen lur hortatik
landare berriak sortuko direla:
landaretatik zuhaitzak
zuhaitzetatik loreak
loreetatik fruituak
fruituetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla.

Sinesten dut
haiek ere noizpait
lurrera deituak izanen direla,
zabaltasun sakonera
forma guztien sortokira itzuliko garela.

Sinesten dut
izaki guztien aldakuntza
etengabea dela,
itxuraldatze sakon batek berbihurtzen gaituela
eta izatetik izatera
atsedenik gabeko mugimenduak garamatzala.

Sinesten dut, bai
egun batean hilko naizela:
hutsean eroria
ezerezean amildua
hauts bihurtuko naizela”

Leteren itxaropenik gabeko hitz horiek itxaropenez beteak dira. Iñaki gogoan dugu. Eta gogoan izango dugu, hala geratuko zaigu, ez bakarrik eskura utzi dizkigun lanengatik. Horiengatik, bai, jakina. Baina, ororen gainetik, gizon ona baitzen, “on” hitzak duen zentzurik onenean. Une triste hauetan, kosta egiten bazait ere, alaitasuna aldarrikatu nahi dut. San Ambrosioren hitzak euskaratu zituen Axularrek: “Nola obra gaixtoan edireiten baita tristura eta malenkonia, hala onean, onera emanean, eta emendatzean, edireiten da alegriantza eta bozkarioa”. Eta Iñakiren bizitza, obra onean kokatzen da. Horregatik nahi dut, ezintasunaren gainetik, hertsiki eskatu alaitasuna, eta poza.

Eskerrik asko guztiei, eta, denen izenean, besarkada estu bat zuri, Iñaki maitea!

Eta orain, familiak hala eskaturik, Iñakiren lagunak batek, adiskideren batek... zerbait esan nahi baldin badu... pozik entzungo dugu guztiok.